

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	ALUMINIOZKO ELEMENTUEN MUNTAKETA ETA DESMUNTAKETA (Zeharkakoa)	Iraupena	30
		Baldintzatua	
Kodea	UF0920		
Lanbide-arloa	GARRAIOA ETA IBILGAILUEN MANTENTZE-LANAK		
Lanbide-eremua	Ibilgailuen karrozeria		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ibilgailuetako karrozerien egituren mantentze-lanak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Elementu finkoak.	Iraupena	180
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Elementu finkoen desmuntaketa eta bereizketa (Zeharkakoa)	Iraupena	60
	Egitura-elementu finkoak lotzeko eta askatzeko metodoak.		90

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator IUC0124_2 IBILGAILUAREN ELEMENTU FINKOAK OSORIK EDO PARTZIALKI ORDEZKATZEA gaitasun-ataleko LB1, LB2 eta LB3 lanbide-burutzapenekin, lotura-metodoen desmuntaketari, muntaketari eta metodoei dagokienez.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Aluminiozko elementu finkoak behar bezala desmuntatzea, eta lan-prozesuan ezarritako hainbat lan egitea.

E1.1 Aluminiozko elementu finkoak desmuntatzea.

- Errematxagailua behar bezala erregulatzea.
- Konpondu beharreko piezaren loturan dauden errematxeak askatzea.
- Ebaketak egitea aluminiarako egokiak diren hainbat ekiporekin.
- Piezak behar den tokietan teilakatzea.
- Egindako ebaketa-lanak arau teknikoetan emandako espezifikazioekin bat datozen begiratzea.

A2: Aluminiozko elementu finkoak prestatzea, konpontzea eta lotzea, ekipoak trebetasunez erabiliz.

E1.2.1 Loturak prestatzea, hainbat prozedura aplikatzeko:

- Lotura-eremuak garbitzea, hondakinak kenduz.
- Erremintak parafina-xaboiarekin garbitzea.
- Behar den eremuetan teilakatze-kontratxapak egitea.
- Loturen kontratxapak jartzea, behar denean, loturagatik jasan behar dituzten esfortzuen arabera eta/edo lotu behar diren materialen eraikuntza-ezaugarrien arabera.
- Errematxatu beharreko gainazalean zuloak egitea aluminiarako barauts berezi batekin.
- Itsasgarria errematxatutako gainazal guztian aplikatzea, zaratarik ez egiteko.
- Errematxe-mota desberdinak aplikatzea (itsuak eta trinkoak), errematxagailu espezifiko bat erabiliz.

E1.2.2 MIG/MAG soldaduraren bidez elementuak lotzea:

- Aluminiarako hari jarraitu espezifikoa soldatzea gas babeslearekin.
- Egiartzatzea soldatutako elementuek betetzen dituztela fabrikatzaileak zehaztutako ezaugarri funtzionalak eta/edo eskatutako beharrak.

Edukiak

1. Puntak kentzeko eta ebakitzeko lanak.

- Errematxea prestatzea.
- Barauts espezifiko bidezko zulaketa.
- Irudikapen grafikoa: krokisa eta kotazioa.
- Ebaketaren trazadura eta prestaketa.
- Eskuzko tresnekin eta tresna elektriko eta pneumatikoekin elementuak ebakitzea.
- Ebaketa-erremintetan parafina-xaboa erabiltzea.
- Ebaketa-gunea korrosioaren kontra babestea.
- Aluminiarako erreminta eta makina espezifikoekin ebakitzeko prozesuei lotutako kontzeptuak.
- Erraz iristen den eta iristea zaila den eremuetako errematxeak kentzea.
- Errematxe-fresaketa.
- Itsasgarriak dituzten eremuetako bizar-kentzea.

2. Aluminiozko elementuak soldatzeko eta lotzeko metodoak.

- Soldatze-prozesuetan erabiltzen diren inprimazioak eta desoxidagarriak.
- Loturak eta soldadura-ekipo espezifikoak prestatzea.
- Ekipoen funtzioa, ezaugarriak eta erabilera.
- MIG/MAG soldadura-prozedura espezifikoak.
- MIG/MAG soldadura-prozedurak, tapa bidezkoak.
- MIG/MAG soldadura espezifiko bidez piezak lotzea.
- Suaren aurkako manta erabiltzeko metodoa.
- Lotura-eremuen garbiketa.
- Haria emateko aliketekin teilakatzeko-eremua egitea.
- Irudikapen grafikoak: krokisa eta kotazioa.
- Lotu beharreko eremuaren marraketa eta prestaketa.
- Lotu beharreko piezak ondoko elementuekin jartzea.
- Errematxagailu espezifikoaren erregulatzeko prozedura.
- Errematxeak erabiliz loturak egitea.
- Bi osagaiko pistola erregulatzeko prozedura.
- Itsasgarri bidez lotzeko teknika.
- Itsasgarri bidez lotzea.
- Gako bidez lotzeko teknika.
- Gako bidez loturak egitea.
- Erremintekin eta makinekin lotzeko prozesuei dagozkien kontzeptuak.

3. Teilakatzeko-kontratxapak egitea.

- Kontratxaparen funtzioa, ezaugarriak eta erabilera.
- Kontratxapa-mota desberdinak egiteko metodoa.
- Kontratxapak egitea, ezarritako parametroei jarraituz.
- Kontratxapak jartzeko teknika.
- Nerbioak edo etendurak egitea.
- Tentsioak ezartzeko teknika.
- Itsasgarriekin jartzeko metodoa.
- Itsasgarriekin jartzea.
- Errematxeekin jartzeko metodoa.
- Errematxeekin jartzea.
- Erraz iristen den eta iristea zaila den eremuetako kontratxapak egitea.
- Zuzenean iritsi ezin den eremuetako kontratxapak egitea.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta lanbide-eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF0918: Elementu finkoen desmuntaketa eta bereizketa.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ibilgailuetako karrozerien egituren mantentze-lanak